



Life proiektua Aiako Harria parkean: ibaiak egurraren bidez aberasten

testua eta irudiak

Mikel Sarriegi

(Basoinsa S.L. Ingurumen Ingeniaritza)

Añarbeko urtegia urez elikatzen duen arroa Aiako Harria Parke Naturalaren barruan dago. Balio natural handiko kokapen honean aurki ditzakegun ibaiak eta errekek hobekuntzarik edo lehenatzerik beharko zuketenik inork gutxik pentsa zezakeen. Ibaiak berezko ibilgua mantentzen dute. Baso sail handi eta ederrak zeharkatzen dituzte. Ez dago industriarik, ez dago urbazterrekiko presio urbanistikorik. Ura garbi dator, Euskal Herriko ibaietan nekez aurkituko dugun gardentasunaz. Falta du zerbait, baina, izan ere horrelako ezaugarriak dituzten errekek izan beharko luketen baino askoz arrain eta fauna eskasagoa erakusten baitigute.

Euskal Herriko Unibertsitateko Ekologia Saileko ikerlari lantalde batek, gabezia honen aztertzaile eta jakitun, soluziobide egokia gerta daitekeen ildoan proposatu eta garatu du azken urte hauetan. Beste herrialde batzuetan ezagutzen den eskarmentutik eta gure ibaien ezaugarrietatik abiatuz, ur-ibilguetan aspaldidanik “desagertua” dagoen egur hila edo ihartua erabiltzeko proposamena luzatu zuten. Bada, betidanik, ohitura hutsez, egur eta enborrak kendu izan baitira ibaietatik, bai egurretarako erabiltzeko, bai urari oztopoak kentzeko eta uholdeen arriskua txikitzeko. Eta egurrak ibai-sisteman duen zeregina deuseztatuz, sistema beraren soilteza eta txirotzea ekarri du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aiako Harriak Parkearen inguruan bultzatu duen LIFE Europa mailako proiektuak lan-ildo honi babesa eman zion orain 3 urte, eta ikerketa gauzatzeko lanabesak eskaini zizkion gaur hemen aurkezten dugun proiektuaren egikaritzea posible izan dadin. 2006. urtean oinarritzko azterketa landu ondoren, 2007an proiektua idaztea eskatu zuen, eta honen ondorioz, 2008. urtearen hasieran, proiektuan aurreikusitako lanak burutu ahal izan dira Añarbeko lau erreketako beste hainbat ibilgu zatitan.

Egitasmoaren helburu nagusia, erreketan egurra sartuz hauen egituraren konplexutasuna handitzean datza; eta halaber, konplexutasun horren bidez, sedimentazio-tasak handitu eta materia organikoaren deskonposaketa handitzea batetik, eta habitat desberdinei dagokienez, aberastasun handiagoa eskuratzea bestetik.


Helburu biak ala biak dira garrantzitsuak, Añarbeko urtegiak (Donostialde osoa edateko urez hornitzen duenak) oxigenatze faltaren eta kolmatatzearen arriskuak dituelako; eta zenbait espezie babestu eta ugaltzeko beharra dagoelako, hala nola, ur-satorra (*Galemys pyrenaicus*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*), edota hainbat koleoptero.

Lanak egiteko lau ibai-zati pilotu aukeratu ziren (Malbazar, Atseginsoro, Latxe eta Añarbe ibaietan). 2008ko urtarrilean zehar egurra ibairatu dugu ezaugarri eta egoera desberdinetan: bertako egurra erabili dugu guztiz, lekuan lekuko pinu, haritz, haltza eta sahatsa; zeharka presa modura, ala luzetara deflektore antzera; hala zuhaitz osoak, ipurdi eta guzti, nola egur txikiagoak, enbor-zatiak, adaburudunak, adarrak eta inaurkinak. Irispideen zailtasunak medio, lan guztiak eskuz egin dira, baliabide mekaniko mugatuak baliatuz. Guztira 140 enbor baino gehiago ibairatu ditugu, beste hainbat adakiz batera.

Elementu hauek eragin bikoitza izatea espero dugu: eragin hidraulikoa, ur korrontearen funtzionamendua aldatuz, abiadura bizkortu edo motelduz...; eta sedimentuen gaineko eragina, solidoen eta materia organikoaren atxikipena areagotuz. Ibaia osatzen duten aldagai ekologiko guztien aberastasuna modu nabarmenean handitzea espero dugu, azken batean.

Honela, bada, lanak burutu eta berehala, ondorioak ikusteko aukera izan genuen. Ibaien morfologiarekiko aldaketak eta orbelaren pilaketak berehala nabarmendu ziren.

Dagoeneko Euskal Herriko Unibertsitateko zientzialari taldea jarraipena egiten ari zaio, eta hainbat aldagai aztertzen ari dira, besteak beste, morfologia, granulometria, sedimentuengan eragina, atxikimendu hidraulikoa, elikagaien eta orbelaren atxikimendua, metabolismoa, orbelaren deskonposaketa eta perifiton, makroornogabe eta arrainen ugartitasuna eta komunitateak. Azkenaldi honetan, besteak beste, Uraren Europako Zuzentarau Markoa tarteko, hainbat egitasmo eta lan burutzen ari dira ibaien balio naturalak eta jatorrizko ezaugarriak berreskuratzeko ahaleginean. Honako esperientzia honek, ibaiek garai bateko kalitatea eta berezko izaera eskuratzeko prozesu orokorrean azken urratsa izan daitekeena nola egin erakutsiko liguke.



Badakigu ibai-sistemak berezko duela bere-berea den dinamika berreskuratzeko ahalmena, eta denboraren poderioz, ezer egingo ez bagenu, garatuko lituzkeela desiragarriak ditugun komunitate biologiko osoak ere. Ordea, hemen aurkeztu dugun metodologia honek, ibai osasuntsuak lortzeko helmuga hori gerturatzeko lagun dezake, zalantzarik gabe.

Informazio gehiago: www.lifeaiakoharria.net